

Mundu bat gaztelania eta ingelesetik pasa gabe

EUROPA BAT-BATEAN

Apirilaren 17an Hernaniko Biteri Kultur Etxean lau hizkuntza gutxitutako kantu inprobisatuak uztartu zituzten oholtzan: Sardinia-ko Simone Monni eta Paola Dentoni; Zinar Ala kurdia; Herrialde Katalanetatik Christian Simelio eta Anaïs Falco eta bertako Arrate Illaro eta Maialen Lujanbio. Hurrengo emanaldiak: apirilaren 20an Iruñean, 21ean Markina-Xemeinen, 22an Uztaritzen eta 23an Aramaion.



Estixu Eizaguirre Kerejeta
@eeizaguirre

Estaturik gabeko lau herritako lau hizkuntza gutxituetan egiten den kantu inprobisatutik zertxobait eraman genuen golkoan emanalditik. Eta hiltunon poza, konplizitate beroa, Maialen Lujanbiok hasierako eta amaierako agurretan seinatu zuenez, gozatu genuen emanaldia ez baitzen izan “mundu mailakoa, baizik unibertsal”; eta emanaldi elea nitza posible izan zelako “gaztelania eta ingelesetik derrigor pasa gabe”. Inprobisatzaileek amaitu ostean laburpena euskaraz irakurri genuen atzeko pantailan. Hala, erritmo egokian jarraitu genuen zuzeneko jarduna.

Bat egin genuen Zinar Alarekin, Alemanian bizi den kurduak publikoari derrigorrezkoa zuela gure kolaborazioa adierazi baitzigen, ezagutzen zituen euskarazko hitz guztiak erabiliz, Ankarako Espainiako enbaxadak ez baitzien bi inprobisatzaile kurduak etortzen utzi. Ulertzekoa, kurduak kantagai sarri mina izatea, dengbeja bidez herriaren historia eta ezinezko maitasunak harilkatzea, *Iritsiko da Eguna* bertso jarrietan entzun genuen gisa.

Sardiniarrek ere eguneroko gaiei heldu zieten, zabalean planteatuta, erdi librean ariko bailiran: landako bizitzaz



Zinar Ala kurdia “Iritsiko da Eguna” bertso jarriak kantatu berri.

XDZ

eta hirikoaz aritu ziren. Entzuleontzat harrigarriena kantakera izan zen: Cantadoreek inprobisatu ahala, atzean ahots oso grabez oinarritzko akordeak pausatzen zituzten bi koro egilek (Stefano Cara eta Michele Deiana) janzen baitzuten kantua. Ideia bera modu ezberdinetan ematen du cantadore bakoitzak, eta doinuaren solemnitateran ironia fina erabili zuen Simone Monni gazteak, esaterako, udaberriaren edertasunarekin batera zementua larreetara azkar hedatzen dela kantatuz, (sasi?) metaforikoki. Han eta hemen eguneroko borroka txikiak (kasu honetan, elikadura burujabetzarena) berak direla oartzeko ere balio izan zigun emanaldiak, Paola Dentonik amaitu baitzuen kantaldi hura gogoratuz “ez dugu landa utzi behar jaten ematen digun lurra baita”.

Katalanek glosa, garrotina eta corrandak kantatu zituzten, Gerard Diezek soinu txikiarekin lagunduta. Publikoak bakoitzaren leloak kantatu genituen. Ez zuten aukerarik galdu euskaldunok partekatzen dituzten erreferentziak erabiltzeko. Bertso politikoenak hauek kantatu zituzten, umore kolpez jantziak. Esaterako, Christian Simeliori bakarka

aritzeko gaia jarri zion Maite Berriozabalek: “Lapurra izan zara, baina lanean hastea erabaki duzu”. Simeliok bota zuen orain legalagoa dela egiten duena, “ulertuko duzue, PPko zinegotzia naiz”. Gaiak planteatzeko modua eta hauei ekitekoa hemengo bertsolarien oso parekoa dutela ikusi genuen. Horren lekuko, Anaïs Falco eta Maialen Lujanbiok egin zuten saioa, biak corrandakin doinuarekin, eta Lujanbiok itzultzaileak behar ez zuela, elkarri erantzunaz. Emanaldiko puntu gorenetakoa izan zen.

Arrate Illarok Sardinia-ko Simone Monnirekin eginiko saioak ere utzi zuen kolpe ederrik.

Amaierako agurrak biribildu zuen emanaldia, guztiek Herrialde Katalanetako doinu berean kantatu baitzuten, bakoitzak bere herrialdeko instrumentuz lagunduta. Elkarrekin oholatza gainera soilik ez, egun osoa partekatzearen emaitza, inondik ere. Lehen emanalditik bigarrenera jauzi handia nabaritu bada konplizitatean, kantu inprobisatuak besteekin josteko moldean, nolakoak izango ote dira hurrengo emanaldiak? Ez galdu bizitzeko aukera, edo gutxienez, bideoz ikustekoa (bertsoa. eus-en). ■